

8

SEGURTASUNA SAREAN

II

APIRILA
2017

Infokontsumoa



IRUZURREZKO PRAKTIKAK

SANTURTZI
udala - ayuntamiento
Stz

IUB
MIC

 **kontsumoBIDE**
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO


ONLINE DENDA FALTSUAK

www.🛒.com



NOLA IDENTIFIKATU

- ▶ **Web-orriaren itxura:** diseinua ez bada homogenea (adibidez, letra mota desberdinak), atariko argazkia faltsua bada edo web-orriak ez badu azpialik (pribatutasunari buruzko politika, lege-oharra...).
- ▶ **Enpresaren informazio legala:** ez dago edo erredakzioa ez bada koherente eta zuzena.
- ▶ Salgaiak **oso prezio baxuetan** badituzte edo dituzten eskaintzak onegiak badira.
- ▶ **Harremanetan jartzeko:** inprimakia betez, posta elektronikoz edo telefonoz bakarrik. Egoitza fisikoaren daturik ez bada agertzen.
- ▶ **Ordainketa mota:** ez badago ordaintzeko aukerarik, soilik Western Union edo antzekoen bidez edo banku transferentzia eginez.
- ▶ **Itzulketa-politika:** ez baditu betetzen legeak ezarritako gutxieneko baldintzak. Legez, Internet bidez egindako erosketetan kontratua desegin daiteke 14 egun naturaleko epean.




NOLA KONPROBATU

- ▶ Ustezko dendari buruzko informazioa Interneten bilatuz.
- ▶ Beste erabiltzaile batzuek web-orriari buruz utzi dituzten iritziak begiratzuz.
- ▶ GOOGLEn argazkien alderantzizko bilaketa eginez. Horretarako IRUDIETAN sartu eta argazki kameraren ikonoa klikatu behar duzu. Horrela irudi bera web-orri batzuetan agertzen den konprobatu ahal izango duzu.
- ▶ Online zigiluak konfiantzazkoak eta benetakoak diren egiaztatuz. Horretarako zigiluan bertan klikatu eta zuzenean eramango zaitu konfiantzazko web-orriara.




PHISING-a

- ▶ Ziberdelitua da: **mezu elektroniko, berehalako mezularitza, SMS, sare sozialak eta abarrekoak erabiliz mezua bidaltzea informazio pribatua lapurtzeko.** 
- ▶ **Ordenagailua edo gailu mugikorra infektatzeko** ere erabil dezakete, zure artxiboetara ezin sartzeko berreskuratze saria ordaindu arte.
- ▶ Normalean legezko erakundea direlako plantak egiten dituzte -bankuak, organismo publikoak, saltokiak,
- ▶ Mezu horietan datu pertsonalak eguneratzeko eskatzen dizute edo sariren bat irabazi duzula esaten dizute eta web-orri ofizialaren antzeko esteka batera bidaltzen zaituzte, zure datuak sar ditzazun.
- ▶ Mezuaren edukia ezohikoa izaten da eta normalean ortografia akatsak eta gramatika hutsak izaten ditu.

ADIBIDEA:

Ustez bankuaren mezua jasotzen duzu zeinetan segurtasun arazoren bat izan dela azaltzen dizuten eta zure datuak ahalik lasterren egiaztatzeko eskatzen dizuten, zure kontu korrontea ez dutela arriskuan jarri egiaztatzeko. Horretarako zure pasahitza sartu beharko duzu ematen dizuten esteka batean.




NOLA SAIHESTU

- ▶ Anti-spamerako filtroak erabili eta posta elektronikoaren erabiltzaileen anti-phishing ezarpenak ere bai.
- ▶ Erabili pasahitza sendo eta zitura (letra larri, xehe, ikur eta zenbakiak dituena) eta noizean behin aldatu.
- ▶ Horrelako mezurik jasotzen baduzu, ez erantzun. Estekarik badago, ez klikatu. Eta, eranskinik badu, ez zabaldu. Mezua ezabatu behar duzu. 
- ▶ Web-orria legezkoa dela egiaztatu, begiratu beti URL-a nahi zenuen orri-an zaudela ziurtatzeko.
- ▶ Zalantza izanez gero, jarri erakunde edo igorlearekin harreman zuzenean beren identitatea egiaztatzeko.

Iturriak:

Kontsumobide, www.kontsumobide.euskadi.eus
Oficina de Seguridad del Internauta (OSI), www.osi.es

GOMENDIOAK

- ▶ Saihestu wifi sare publikoak (nahiz eta pasahitza izan) online tramiteak burutzeko. Sare pribatuak baino errazagoak dira erasotzen.
- ▶ Datu pertsonalak web-orri seguruetan baino ez sartu: https:// hasten diren URL-ak eta giltza-  rrapo itxiaren irudia dutenetan edota giltza. 
- ▶ Zenbait nabigatzailetan  ikurra agertzen da web-orriaren helbidearen aurretik. Klikatzen baduzu, nolako konexioa den ikus dezakezu.
- ▶ Erabiltzaile eta pasahitza sartu baduzu, saioa itxi beti irtetea.
- ▶ Nabigatzailea eguneratuta izan beti.
- ▶ Gailuak antibirus eguneratuak erabiliz babestu.
- ▶ Gailuetan gordetzen duzun informazioaren segurtasun kopiak egin noizean behin.

NON ETA NOLA EGIN ERREKLAMAZIOA

Edozein zalantzatarako edo erreklamaziotarako :

Santurtziko KIUB bulegora

Kontsumitzaileei Informazioa emateko Udal Bulegoa
Murrieta etorbidea, 25. (Oriol Jauregiaren ondoan)
Ordutegia: 9:30-13:30 astelehenetik ostiralera

